# GRAND BOT – PROTECT OUR FUTURE

## 7- BALIABIDEAK

Gure enpresaren aldetik, baliabideak eta haien gestioa ezinbestekoak izango dira ere azken lorpenen biderako. Hauek modu erraz eta sailkatu batean azaltzeko, lau esparrutan jarri ditugu: baliabide fisikoak (ukigarria), intelektualak (ukiezina), giza baliabideak (ukigarria) eta finantzia lak (ukiezina).



Baliabide fisikoen barnean, nahikotxo beharko genituzke gure proiektua aurrera eramateko. Lehenik eta behin, garraiobide (kamioneta) bat beharko genuke, instalazioa modu egokian egin ahal izateko. Gero, xedearen beharra ere dago, kasu honetan lokal batena, horrela zentrala ondo finkaturik izateko. Ostean, materiala izango genuke, hau da, telefono bat, altzairuak, ordenagailuak eta bestelako materiala. Bukatzeko instalatzeko sentsore, ate, kamera eta barrerak beharko genituzke.

Baliabide intelektualen barne, gure lantalde bakoitzaren ideiak eta izaerak izateaz gain bakoitzaren espezializazioak daude. Adibidez, sare sozialen taldean, langile horiek daukaten sare sozialak erabiltzeko kapazitatea egongo litzateke eta berdin harreman pertsonalen taldean ere.



# GB

Giza baliabideak gure langileak eta gu izango ginateke eta hauek, esan bezala, gure bezeroekiko harremanak eta enpresaren funtzionamendua errazteko erabilgarrienak direla uste dugu. Eta, bukatzeko, baliabide finantzia lak daude. Hauek, diru iturriak atalean esan bezala, Sektore Publikoa, bankuak (maileguak) eta gure inbertsioa izango litzateke.